

## Positiboek eragindako berrogeialdiek eta grebak markatu dute eskolara buelta

Eskolara buelta gorabeheratsua izaten ari da Durangaldean. Kasu positiboek agerraldiek eragina izan dute hainbat zentrotan. Bestalde, grebak jarraipen zabala izan zuen Durangaldean. • 2-3



## Entitateek Euskaraldian izena emateko azken bultzada

Enpresa, komertzio, elkarte zein taldeetan euskaraz lasai berba egiteko espazioak sortu gura dituzte: ariguneak. • 6



### Ruben Gorospek Tourmalet bizikletan atzerantz igo gura du domekan

**Kirolak** | 17 kilometroko luzera duen Tourmalet mendatea igotzeko asmoa du txirrindulari ohiak, domekan. Osasun krisian gehien sufritu dutenei ez ezik, Bautista Onaindia 'Treinta'-ri ere eskaini gura dio saiakera. • 26



Hizkuntza Eskola Ofiziala / Escuela Oficial de Idiomas

### Matrikula zabalik

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 28ra
2. fasea: irailaren 28tik urriaren 15era

PRESENTZIALA

Azaroaren 2an

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoeo.hezkuntza.net  
94 620 33 42 - 94 681 66 45







Durangaldeko hezkuntza komunitateak Ezkurdi plaza hartu zuen martitzenean.

## Aldarrikapen bateratua, baliabide gehiago eskatzeko

Durangaldeko hainbat irakasle, ikasle, guraso eta hezitzailek bat egin dute hezkuntza arloko sindikatuen eskariekin. Denek batera egin dute protesta asteon

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Mobilizaziorik handienak hiriburuetan egin ziren arren, Durangon ere igarri zen hezkuntza komunitatearen protesta. Ikastetxeetako irakasle eta hezitzaileek greba egin zuten martitzenean. Hezkuntza Sailari baliabide gehiago eskatu zizkieten eskolaria buelta "seguru eta adostua" bermatzeko. Eta Durangaldeko hezkuntza komunitateak babestu egin zituen eskari horiek. Martitzen arratsaldean ehunka irakasle, ikasle, guraso eta hezitzaile batu ziren Ezkurdi plazan. Denerik ikusi zitekeen. Kartelak zituzten eskuetan, eta pankarta pare bat alderik alde zabaldua.

Hezkuntza arloko sindikatu guztiek egin zuten greba deialdia (ELA, LAB, Seteilas, CCOO eta UGT). Horien esanetan, lanuzteak %70eko jarraipena izan zuen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetan. Hezkuntza Sailak, ostera, beste datu bat eman zuen. Bere esanetan, hezkuntza sare publikoko langileen %41,9k egin zuen greba.

### Sindikatuaren eskariak

Hezkuntza arloko sindikatuen iritzian, "onartezina eta ardurabakoa" izaten ari da Hezkuntza Sailaren kudeaketa. Aurrez aurreko eskolak eman ahal izateko osasun bermeek bete barik jarraitzen dutela diote. Kudeaketa "aldebakarrekoa eta adostu bako" izaten ari da euren esanetan. Kontzeptu horren gainean oinarritu zuten martitzeneko greba eguna.

Hainbat eskari eginda defendatu dute mobilizazioa. Hasteko,

ikastetxeetako eragileei plangintza bat banatzeko eta plangintza hori adosteko eskatu diote Hezkuntza Sailari. Ikasgeletako ratioak jaiste eskatu dute, eta irakasleren bat ordezkatu behar balitz, ordezkapen hori lehenengo egunetik bertatik egitea. Baliabideei buruz ere badaude eskariak: azpikontratazioa mugatzea eta, beharrezkoa balitz, langile propio gehiago kontratatzea eskatu dute. Eskola garraioan eta jantokietako zerbitzuetan ere badaude eskariak. Ikasleen artean egon daitezkeen arrakala teknologiko eta sozialei aurre egitea da beste eskarietariko bat.

### Eragile askoren inplikazioa

Eragile askok babestu dituzte sindikatuen eskakizunak. Berton Bertokoa mugimendua, Atxondoko Ikasleen Gurasoen Elkarte eta Ikasle Abertzaleak antolakunde dira horietariko batzuk.

Hezkuntza arloan inplikaturako eragileak dira hirurak, baina bat datoz grebaren eskakizunagaz. Berton Bertokoak eta Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak baliabide gehiago eskatu dituzte. Bestalde, Ikasle Abertzaleak antolakundeak salatu du langile klasearen aurkako "ofentsiba" bat gertatzen ari dela.

### Giroa "nahastea"

Iñigo Urkullu lehendakariaren esanetan, grebak ez zuen lagundu "zailtasunei konponbideak bilatzen". Grebaren helburuak Eusko Jaurlaritzaren berria kritikatzeko eta "giroa nahastea" zirela argudiatu zuen.



**Itziar Barrenetxea**  
Irakaslea

**Zergaitik erabaki duzu Durangoko mobilizaziora etortzea?**  
Hainbat arrazoiengaitik etorri naiz mobilizaziora. Alde batetik, eskolan segurtasuna bermatzea gura dut, eta baliabiderik ez faltatzea. Ikasgeletako ratioak jaiste ere eskatzen dugu. Baita jantokietan segurtasuna bermatzea ere. Bestalde, baliabide eta langile gehiago ipini daitezkeen eskatzen dut. Horiek dira gure oinarritzko eskaerak.



**Arantza Iraurgi**  
Irakaslea

**Grebaz bat egin duzu.**  
Aspaldi egin genituen eskariak, eta oraingoz ez zaie erantzunik eman. Umeen segurtasuna bermatzea lehen tasuna da, eta ditugun baliabideak justuak dira.  
**Zelan hasi duzue ikasturtea?**  
Kontingentzia plan bat egin genuen ekaineko araudiagaz. Abuztuaren amaieran beste arau batzuk atera zituzten eta horregaz berrantolatzen ari gara. Ziurgabetasuna dago.



**Nerea Beltran**  
Gurasoa eta irakaslea

**Ama eta irakaslea zara. Eskolara bueltaren alde biak gertutik eza-gutzen dituzu.**  
Ezjakintasun handia dago, bai alde batean bai bestean.  
**Zelan bateratzen dira lana eta umeen zaintza?**  
Telelana egin nuen etxean. Bauen abantaila hori. Baina lan pribatuetan oso zaila da kontziliazioa. Esango nuke politikoki hori kudeatzea ez dela erraza, baina ez da erraztasunik ipintzen. Herrialde honetan ez behintzat.



**Eneko Landa eta Irati Areitio**  
Ikasleak

**Ikasketei berrekin diezue. Zelakoak izan dira lehenengo egunak?**  
**ENEKO LANDA:** Kontrol falta ikusi dut gehienbat. Kaosa egon da. Gure klasean 23 gara eta ikasturtea erdi-presentziala egitea erabaki dute. Irizpide lar orokorra da.  
**IRATI AREITIO:** Gure klasean 50 gara. Ikasleen arteko distantzia ez da mantentzen, gela nahiko mugatuta

dagoelako. Ikasgai batzuetan presentziala da guztiz. Beste ikasgai batzuetan klase erdi-presentzialak dira. Irakaslearen arabera. Hartutako neurri guztiak gel desinfektatzaile eta maskararen erabilpena mugatu direla iruditzen zait. Leioako unibertsitateko autobusean, ikasle guztiak batera goaz. Klasea ere batera sartzen gara.



# COVID-19 kasuen agerpenak eskolara buelta markatu du Zaldibarren, Abadiñon eta Durangon

Zaldibarko eskola joan zen asteko eguaztenean zarratu zuten. Handik astebetera berriro zabaldu ditu atearak



Traña-Matienako ikastetxe argazkia.

## DURANGOALDEA • J.G.

Eskolara buelta aldapatsua izaten ari da COVID-19aren eraginez. Han eta hemen, kasu positibo banaka baten agerraldiak protokoloak aktibatu ditu Zaldibarren,

Abadiñoko Traña-Matiena auzoan eta baita Durangon ere. Ikastetxetan neurriak hartu arren, hainbat kasu agertu dira eskualdean.

Durangaldeko eta EAeko Lehenengo kasuetariko bat Zaldibarko

eskolarena izan da. Horrek oihartzun mediatiko handia eragin du. Joan zen eguaztenean Zaldibarko zentroa itxi egin zuten irakasle batzuen positiboengaitik. PCR probak egin zizkieten irakasleei eta

baita ikasle batzuei ere. Astebete geroago zabaldu dute zentroa, gela bitako ikasleak berrogeialdian utzita.

Traña-Matienako eskolaren kasuan, LH 6. mailako ikasle batek

positibo eman zuela publiko egin zuten Abadiñoko Independententek taldeak bere webgunean, domekan. Protokoloa aktibatuta, maila horretako gela bietako ikasleek eta irakasleek berrogeialdia egin beharko zutela adierazi zieten zapatuan. Geroago argitu zieten umeei PCRa egingo zietela eta berrogeialdia egin beharko zutela. Beraz, LH 6. mailako 50 ikasleak berrogeialdia egiten dabilta asteon.

## Traña-Matienako LH 6. mailako 50 ikasleak berrogeialdian daude asteon

Durangoko Jesuitak ikastetxean ere hainbat ikasle berrogeialdian daude kasu positibo baten eraginez. LH 4. mailako gela oso bat dago isolamenduan, domekatik. Ikastetxe arduradunek zapatuan jakin zuten positibo kasuaren berri eta protokoloa aktibatu zuten. Lehen Hezkuntzako 4. Mailako gela bateko 24 ikasle eta euren hezitzaileek etxean egon beharko dute hamar egunean, ikastetxe iturriek ANBOTORi azaldu diotenez. Egunotan PCR probak egin dizkiete. Ikastetxe gainerako klaseekin normaltasunez jarraitzen dute.

## ZURE AUTO BERRIA OSO HURBIL DUZU ETA ORAIN DESKONTU ITZELAREKIN

8.000€-ra arteko deskontuak gama guztian  **HYUNDAI**



**ORTASA DURANGO-ABADIÑO**n gaude zure zain:  
Murueta auzoa, 48220 Abadiño (EROSKI merkataritzagunearen aurrean)

946 20 37 66 | Eskatu informazio gehiago [www.grupoortasa.com](http://www.grupoortasa.com) webgunean

**GRUPO ORTASA**  
HYUNDAI • ŠKODA • HONDA • SUBARU • SUZUKI • SSANGYONG

Deskontu hau auto honentzat da: Hyundai Tucson 48V 1.6 CRDI 85.4 kW (116CV) 4x2 48V Edizio Berezia (23.715€) 8.000€-ra arteko deskontuarekin ibilgailuaren prezioaren gainean, BEZ-a, garraioa eta matrikulazio tasa barne. Deskontua hauen araberakoa izango da: promoziozko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta Cambia a Hyundai Plana, baldin eta Hyundai auto berria erosten duen bezeroak beste ibilgailu bat entregatzen badu, autoaren 6 hilabeteko titulartasuna duelarik. Hyundai Moya produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat da aplikagarria. Cetelem SAU bankuaren bitartez egin behar delarik, gutxienez 10.000 euroko zenbatekoarekin eta gutxienez 60 hilabete epea 60 hilabete direlarik. Finantza-entitateak aztertu eta onartu beharrekoa da. Eskaintza baliozgarria 2020ko irailaren 30era arte. Informazio gehiago Grupo Ortasa Durango kontzesionarioen sarean.





Pistako zoladura berria da.



Udal ordezkariak joan den barikuan bisitatu zituzten instalazioak.

## Maila goreneko atletismo pista berri bat Durangon, eskualde osoko kirolarien prestakuntzan laguntzeko

Durangoko atletismo pista itxura berriua estreinatu du asteon. Pistako zoladura aldatu dute eta hobekuntzak egin dituzte inguruko kirol eremuetan. Amankomunazgoak babes neurriak eta aurretiazko hitzordua ezarri ditu koronabirusari aurre egiteko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko atletismo pista berri-  
tuak asteon zabaldu ditu ateak. Instalazioak hasi dira jada Durangoko atletak hartzen. Amaitu dira martxoan hasitako lan haiek, eta ailegatu da instalazio berriaz gozatzeko momentua. Begi-bistakoa da pistako zoladura berria dela. Urdin kolore sarkor horrek oso argi erakusten du zoladuran hobekuntzak

egin direla. Baina badira berritasun gehiago ere. Izan ere, kirol zoladurako eremuak zabaldu egin dituzte pisua jaurtitzeko eremuan eta ilargi-erdietan. Eta instalazioetako seinalektika, harea eta hobien drainatze sistema ere eraldatu dituzte, besteak beste.

Durangoko udal gobernu taldea osatzen duten kideetariko batzuk atletismo pista berriua

bisitatzen egon ziren joan den barikuan. Bertan izan ziren Julian Rios alkateordea eta Aritz Bravo zinegotzia. Pozik agertu ziren instalazio berriugaz. "Hile batzuetako obren ondoren, Durangon maila goreneko pista lortu dugu Bizkaiko Foru Aldundiagaz izan dugun lan-kidetzari eskerrak. Kirol lehiaketa garrantzitsuak egiteko eta klubek instalazioez gozatzeko unea heldu

da", azaldu zuten. Durangokoa inguruotako atletismo pistarik onenatarikoa izan daitekeela azpimarratu zuten udal ordezkariak.

Berrikuntza lanak Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu ditu hein handi batean. Guztira,

**"Kirol lehiaketa garrantzitsuak egiteko eta klubek instalazioez gozatzeko unea heldu da"**

591.193,9 euroko aurrekontua izan dute.

### Babes neurriak

Amankomunazgoak astelehenean zabaldu zuen atletismo pista, hainbat babes neurri hartuta. Instalazio barruan 10 atleta egon ahalko dira aldi berean, begirale batek lagunduta. Aldagelak erabiltzeko aukera zabalik dagoen arren, kirola egiteko arropa etxetik jantzita eramatea eta instalazioa arropa beragaz uztea eskatu dute. Gimnasioa ere zabalik dago.

Instalazioak 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo dira zabalik. Erreserbak [atletismopista.mdurango@bizkaia.org](mailto:atletismopista.mdurango@bizkaia.org) helbide elektronikoan egin behar dira.

## Mugikortasun Astea dela-eta, Durangoko San Agustinalde eta Joxe Migel Barandiaran kaleak oinezkoentzat izango dira asteburuan

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangarrak Mugikortasun Astearen sartuta dabiltza egunotan. Eguaztenean ekin zieten egitasmoei, eta ekintzek hilaren 22ra arte iraungo dute. Aurtengo berrikuntza nagusiak bi dira: izurriak hala behartuta, inoiz baino egitaraurik digitalena izaten ari da aurtengoa, eta horretarako propio sortutako egitasmoak ari dira egiten. Bestetik, udalak esperientzia pilotu bat probatuko

du. Hori asteburu honetan bertan izango da. Durangoko Udalak azaldu du San Agustinalde eta Joxe Migel Barandiaran kaleak oinezkoentzako eremu izango direla gaurtik (barikua) domekara. Modu horretan, gaur egun Zumalakarregi kalean dagoen Emisio Baxuko Eremua handitu egingo dute egun bietan.

### Inoiz baino digitalago

Durangoko Udalak Mugikortasun-

nari eta Bide Hezkuntzari lotutako gune berri bat zabaldu du udalaren webgunean. Bizikletaren erabilera egokiari buruzko infografiak eta kartelak ageri dira bertan. Herritarrek material hori deskargatzeko aukera izango dute.

Geu Be elkarteak egindako bideoak eta kanpainan parte hartzen ari diren ikastetxeentzako edukia izango dira web orriko beste elementuetariko batzuk.



San Agustinalde kalea oinezkoentzako gunea izango da asteburuan zehar.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko irailaren 18a  
18. urtea - 820. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Durangoko elkarteek zabalik dute aukera udalaren diru laguntzak eskatzeko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko elkarteek aukera dute euren egitasmoak garatzeko diren diru laguntzak eskatzeko. Durangoko Udalak jakinarazi du 134.496 euro bideratuko dituela elkarteak laguntzera. Elkarre bakoitzaren izaeraren arabera multzokatu dituzte diru laguntzak. Honela banatu dituzte hauek: 64.296 euro kultur ekintzak antolatzeko; 27.000 euro kirol ekintzak antolatzeko; 34.200 euro euskara sustatzeko egitasmoetarako eta 9.000 euro aldizkako argitalpenetan euskararen erabilera sustatzeko.


Bestalde, 10.000 euro bideratuko dituzte 75 urte baino gehiago dituzten herritarren etxebizitzak eraberritzeko.

### Eskariak HAZen

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, eskariak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan egin behar dira, eta aurretiazko hitzordua lotu beharko da arlo bakoitzari dagokion teknikariagaz berba egin ahal izateko.

## 'Zortzaileak' film laburrak irabazi du Berbaroren Labor Esanda lehiaketa

Guztira, 11 lanek parte hartu dute Berbaro euskara elkarteak antolatutako film laburren lehiaketan. Lehiakideek 24 orduko epea izan dute filmak ekoizteko eta entregatzeko



'Zortzaileak' film laburreko fotograma bat.

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Berbaro euskara elkarteak Labor Esanda film laburren lehiaketa antolatu zuen joan zen barikuan. Hasi eta amaitu. Izan ere, parte-hartzaileek 24 orduko epea izan zuten filmak ekoizteko eta lehiaketan entregatzeko. Puxemoi produkzioak taldearen *Zortzaileak* lana izan zen garailea. Finalista geratu ziren Super Kuxkur taldearen *Zetan zabiz?* eta Maritalavista taldearen *Zure*

**Libe Mimenza, Xabier Zabala eta Goiuri Aldekoa-Otalora izan ziren epaimahaikideak**

**Puxemoi, Super Kuxkur, Maritalavista eta Zordunak taldeak izan ziren sarituak**

kontu lanak. Zordunak taldearen *Hartzekoduna* lanak aipamen berezia eraman zuen. Epaimahaia azaldu zuen "harrituta" geratu zirela bideoan hitanoa erabiltzen zelako.

Libe Mimenzak, Xabier Zabalak eta Goiuri Aldekoa-Otalorak osatu zuten Labor Esanda lehiaketako epaimahaia.



## Hibrido Entxufagarrien gama berria.

**EQ POWER.**

Mugarik gabe hiri barruan eta hiritik kanpo.

Mugitu hiritik emisiorik eta murrizketarik gabe motor elektriko bati esker eta gozatu errekuntzako motor batek ibilbide luzeetan ematen dizun askatasunaz. Ezagutu merkatuko autonomia elektrikorik handiena ematen duten gure Hibrido Entxufagarriak eta gidatu hiriguneetan zein errepedeetan zuri askatasun osoa emateko gai den **0 Etiketa**.

### Merkaturatze-eskaintza.

- Aprobetxatu orain Gobernuaren laguntza berriak.
- Wallbox kargatzailearen instalazioa eta 3 urteko bermea barne<sup>1</sup>.
- 3 urteko mantentze-lana eta bermea opari<sup>2</sup>.

Clase A 250 e eta Clase B 250 e: erregai-kontsumoa NEDC/WLTP (l/100 km): 1,6-1,4/1,3-0,9.  
CO<sub>2</sub> isurtzea NEDC/WLTP (g/km): 36-31/30-21. Kontsumo elektriko haztatua NEDC/WLTP (kWh/100 km):  
15,3-14,9/23,2-20,1.

<sup>1</sup>Baliozko eskaintza 2020/09/30era arte. <sup>2</sup>CompleteCare akordioa: 3 urteko bermea eta mantentze-lana, 60.000 km egin arte. Higadura-piezak barne hartzen ditu, pneumatikoak izan ezik. Argazkiko modelo agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en).



Mercedes-Benz

### Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala  
Retuerto kalea, 38.  
48903 BARAKALDO.  
Tel.: 94 497 00 74.  
[www.mercedes-benz-aguinaga.es](http://www.mercedes-benz-aguinaga.es)

Borua enpresa-parkea, Parc. 2A-3.  
48340 ZORNOTZA.  
Tel.: 94 630 17 47.

Botica Vieja kalea, z.g.  
48014 BILBAO (DEUSTU).  
Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90  
48940 LEIOA.  
Tel.: 94 463 11 75.





Euskaraldiagaz bat egin duten Durangoko, Elorriko, Zornotzako eta Zaldibarko entitateen argazkiak.

# Azken txanpa entitateek Euskaraldian izena emateko, irailaren 27ra arte

Enpresetan, dendetan, elkarteetan zein bestelako entitateetan ariguneak sortuko dituzte

## DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Geroago eta gutxiago falta da Euskaraldia martxan ipintzeko. Edizio honetan, Ahobizi eta Belarripresen figurak oinarri hartuta, entitateak inplikatzen jautzia eman gura dute. "Entitate horietan euskaraz jardungo duten ariguneak sortzea da helburua. Arigunea euskaraz lasai aritzeko espazio bat izango da. Barne arigune bat izan daiteke, enpresa edo talde bateko sail bat, lantalde bat edo asanblada bat. Kanpo

arigunea ere sortu daiteke, kanpora begira lan egiten duten bulego edo dendek kasuan, esate baterako. Beti ere, talde horretan euskaraz aritzea bermatzea da asmoa. "Gutxienez denak izan behar dira belarripresak", dio Markel Sanchez Durangoko batzordeko kidea.

### Izen-ematea martxan

Durangaldeko herrietan, Euskaraldia lantzeko batzordeak lanean ari dira. Izan ere, azken txanpan sartu

dira entitateek izena eman dezaten. Irailaren 27ra arte dago apuntatzeko aukera, *euskaraldia.eus* webgunean izena emanda edo bakoitzari dagokion herriko batzordeagaz hartu-emanen ipinita. COVID-19ak sortutako egoerak batzordeen

**Markel Sanchez:**  
"Arigunea euskaraz lasai aritzeko espazio bat izango da"

lan erritmoan eragin duen arren, eskualdeko batzordeak ahalik eta entitatetik gehienei informazioa helarazten ari dira azken egunetan.

"Oso harrera ona izaten ari gara. Dendari eta ostalari askok eskertu egin digute proposamena egitea, gune naturalak dira-eta euskaraz aritzeko. Entitateen argazkia anitza da. Kirol taldeak, ikastetxeak, kultur elkarteak...", azaldu du Murtxe Mujika Elorrioko batzordeko kidea. 35 entitatek eman dute izena Elorrioren. Zornotzan, batez ere komertzioetara eragin gura dute. "Batzordekideak oso inplikaturik daude, eta herria gurea banatu dugu komertzioetara informazioa ematera joateko", gaineratu du Lexuri Sanzek. Zaldibarko batzordean ere gaia lantzen ari dira eta dagoeneko 9 entitatek eman dute izena. Berrizen, Abadiñon, Otxandion eta Mallabian ere ariguneak sortuko dituzten entitateekin dabil-tza lanean.

## EUSKARALDIAN IZENA EMAN DUTEN ERAKUNDEEN KOPURUA DURANGALDEAN

- DURANGO: 45
- ZORNOTZA: 42
- ELORRIO: 35
- ZALDIBAR: 9
- BERRIZ: 6
- ABADIÑO: 4
- OTXANDIO: 2
- MALLABIA: 2

**Iurretako merkataritza eta ostalaritza bonoa**

Trukatu hemen

1€

2€

5€

merkataritza gida sarean anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902  
Argazkiak - Datuak - Kokapena (urrian 2020)





Behargintzaren eraikina Durangon.

## Durangaldeko kohesioa landuko duen enplegu plan bat, datorrenari eusteko

Amankomunazgoak enplegu plan berria ipini du martxan

**ENPLEGUA** • EKAITZ HERRERA

Etortzeko den zurrumbilo sozioekonomikoari aurre egiteko tresnak prestatzeari ekin dio Behargintzak.

Enplegua eta prestakuntza landuko dituen hiru proiektu aurkeztu ditu oraintsu: lanpostu berriak sortuko dituen enplegu plana, langabeei zu-

zendutako prestakuntza ikastaroak eta aisialdiko begirale ikastaroak.

Enplegu plana izango da zutabe nagusia. Horri eskerrak, laneratze-ko zailtasunak dituzten herritarren enplegarritasuna sustatuko du Amankomunazgoak. Lau proiektu garatuko ditu eta 20 lanpostu berri sortuko ditu horietan.

Batetik, beharginak kontratatuko ditu hiri altzarien mantentze lanetarako. Beharginek interes orokorreko hainbat lan egingo dituzte; adibidez, hiri altzarien pintura lanak, elektrizitate konponketak edo garbiketa bereziak. 16 behargin kontratatuko dituzte, urte erdirako, eta beste langile bat hiru hilabeterako.

Durangaldeko herritarren osasuna hobetzeko helburuz, jarduera fisikoa sustatzeko proiektua ere abiatuko du enplegu planak. Horretarako, kirol teknikari bi kontratatuko dituzte. Aktibo bihurtuko dituzte herritar inaktiboak. Gainera, proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisiko eta Kirol zuzendaritzagaz elkarlanean egingo da.

Agroekologiari lotutako enpleguek ere badute lekua. Durangaldeko nekazaritza-elikagaien ekoizpenerako eta kontsumorako, proiektu ekologiko eta gastronomikoa

garatuko dute. Hori dinamizatuko duen teknikari bat kontratatuko du Amankomunazgoak, sei hilabeterako. Merkaturatze zirkuitu laburrak sortzea eta baserri inguruetakoz bizimoduari eustea du helburu proiektuak.

Azkenik, eskualdeko turismo plana eguneratzeko proiektua dago. Turismo teknikari bat kontratatuko dute. Proiektu horregaz, eskualdeko ekonomia dibertsifikatuko da turismoaren bitartez.

Enplegu planak 256.250 euroko diru laguntza jasoko du Lanbideren eskutik.

### Ikastaroak ere bai

Enpleguak beti izan ohi du formakuntza oinarri lez, eta horri ere erreparatu dio Amankomunazgoak. 20 prestakuntza ikastaro eskainiko ditu urritik aurrera. Lau ildo nagusi garatuko ditu: orga jasotzaileei eta biltegiko lanei lotutako ikastaroa, norbere gaitasunak lantzekoa, lan arriskuei buruzkoa eta trebezia digitalei loturikoa. Bestalde, Aisialdiko begirale izateko ikastaroa eskainiko du. Urrian hasiko da. Ikastaroak 150 orduko prestakuntza teorikoa eta 160 orduko praktikak izango ditu.

20

Hemendik eta urte amaierara arte Amankomunazgoak sortuko dituen lanpostuak

4

Ikastaroetan landuko diren ildo nagusiak  
Gaitasun pertsonalak, orga eta biltegi lanak, arriskuen prebentzioa eta trebezia digitalak

310

Aisialdiko begirale izateko ikastaroan eskainiko den ordu kopurua

Urritik martxora bitartean klase teorikoak eta klase-praktikoak eskainiko dira

## “Durangaldeko industria bultzatzen jarraituko dugu, begirada digitalizazioan eta Adimen industrian ipinita”

Ekoizpen industrialia eta jasangarritasuna batuko dituen estrategia landu gura du Amankomunazgoak



Mireia Elkoroiribe  
Zenikaonandia  
Amankomunazgoko  
presidentea  
Durango | 1975

**AMANKOMUNAZGOA** • EKAITZ HERRERA

Oin bat orainean eta bestea etorkizunean ipinita, Durangaldea kohezionatuko duen estrategia ekonomiko bati heltzeko ordua dela dio Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia (Durango, 1975).

Enplegua funtsezko gaia da beti, baina bizi dugun testuingurua kontuan hartuta are eta garrantzi handiagoa hartu dezake.

Dударik barik. Koronabirusak eragindako krisialdi honetan enplegua lehentasun bat da Amankomunazgoarentzat. Alde batetik, enplegua bera dago, eta, bestetik, enplegua sortu ahal izateko promozio ekonomikoa. Gainera, ahalgina egin gura dugu enplegu hori kalitatezkoa izan dadin. Momentu honetan, horiek dira esku artean ditugun lehentasunak eta erronkak. Enplegu plana da Amankomunazgoak epe laburrera martxan ipiniko duen tresnetariko bat. Zeintzuk dira bere helburu nagusiak?

Abuztuko datuen arabera, 3.519 bat herritar daude lanik barik Amankomunazgoak zerbitzua ematen duen udalerrietan. Horiei begira lan egin gura dugu. Enplegu plana berezia izango da aurtan. Amankomunazgoak kudeatuko du eta eskualdeko kohesio bat emango diogu. Orain arte sortu diren enpleguez gainera, berriak sortuko dira. Esate baterako, Elorrioren langile bat kontratatuko dugu turismoa dinamizatzeke. Elorrioren kokatuko da, baina bisitak handik Durangaldeko beste herrietara bideratzea ere bada helburua. Beste adibide bat ipintzeko, kirol teknikari bi kontratatuko ditugu. Aktibitate fisikoaren bitartez osasuna hobetzen lagunduko diguten langileak izango dira.

“Amankomunazgoko parte diren herrietan 3.519 langabe daude; horiei begira lan egin gura dugu”

Aipatu duzu Durangaldearen kohesioa dela erronketariko bat. Zeintzuk dira horretarako ildo estrategiko nagusiak?

Argi dagoena da Durangaldea eskualde industrialia dela. Industria bultzatzen jarraitu gura dugu, bai-

na begirada digitalizazioan ipinita, Industria 4.0 edo Adimen industria deituriko horretan. Eta hori dena jasangarritasunagaz lotu gura dugu. Automozioak indar handia du eta haren inguruko guztia landu behar dugu: smart mugikortasuna, elektromugikortasuna eta bizikletaren moduko baliabide jasangarria. Zeozelan laburbiltzeko, industria jasangarria bultzatzea da helburua.

Enplegua gauza bat da, baina enpleguak ezinbestekoa du prestakuntza. Zer esan horri buruz?

Enplegarritasuna bultzatzeko 20 ikastaro ditugu eta lanean ari gara enpresak sortzeko. Orain arte arrakastatsua izan diren ikastaroekin aurrera jarraitzen dugu. Aurtan, dena dela, digitalizazioagaz zerkusia duten ikastaroak indartuko ditugu. Koronabirusak, besteak beste, horixe erakutsi digu: digitalizazioaren garrantzia.

Bada esan gura zenukeen beste ezer?

Azpimarratuko nuke ikuspegi integral bat ari garela lantzen. Hau da, gizarte zerbitzuekin lanean ari gara, Behargintzaren bitartez han dauden premiei erantzuteko. Pertsona bakoitzaren beharrezkoak eta gaitasunak baloratzen ditugu, ondoren, beharrezko orientazioa, kualifikazioa eta lanpostua bilatzen.



# Mañariko udal eraikinetako argindar kontsumoaren %35 eguzki plaken bitartez lortuko dute laster

Hilabeteren barruan energia berriztagarria sortuko duten 18 plaka fotoboltaiko ipiniko dituzte frontoiko teilatuan

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Azken urteetan energia berriztagarrien aldeko apustua egiten ari dira Mañariko Udalean, eta bide horretan pauso berri emango dute datozen egunetan. Laster plaka fotoboltaikoak ipiniko dituzte pilotalekuko teilatuan, eta handik sortzen den angindarra udaleko eraikinetan kontsumituko dute.

Guztira, 18 plaka ipiniko dituzte, frontoi barruko sarera konektatuta egongo direnak. Plakak 8054 kW sortzeko ahalmena dute eta kopuru hori udal eraikinetan urtean zehar erabiltzen den energiaren %35 da, udaletik jakinarazi dutenez.

Sortutako energia ezingo da almagaztatuta. Hau da, sortu ahala

**"Onurak egongo dira ingurumenean eta gizartean, murriztu egingo direlako igorpen kutsatzaileak"**

erabiltzen joango dira udal eraikinetan: udaletxean, liburutegian, haurreskolan, pilotalekuan eta mediku kontsultan.

Proiektu hau iazko aurrekontuetan aurreikusita zegoen eta 14.810 euroko inbertsioa egingo du



Eguzki plakak frontoi barruko sarera konektatuta egongo dira.

udalak. Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza jaso du, klima aldaketaren arloko jardueretarako programatik.

Egitasmo honek hainbat helburu bete gura dituzte. "Onurak egongo dira ingurumenean eta gizartean, murriztu egingo direlako igorpen kutsatzaileak. Bestetik, dirua aurrezteko ere ekarriko

du", adierazi du Ainara Otxotorena Mañariko alkateak. Hain zuzen ere,

**Udalak kalkulatu duenez, urtean 1.300 euro inguru aurrezteko lortuko dute plaka berriei eskerrak**

urtean 1.300 euro baino gehiago aurrezteko dituztela kalkulatu dute.

Bikote Solar enpresari esleitu dizkiote plakak ipintzeko lanak. Hamar-hamabost egunen barruan helduko dira plakak, eta ondoren bi-hiru egun beharko dituzte ipintzeko. Eguraldiak laguntzen badu, azpiegitura berria hilabeteren barruan egongo da ipinita.

**Otxandioko saihebidetako asfaltatzeko lanek hiru aste iraungo dute**



**OTXANDIO • J.D.**

Astelehenetik martxan dira Otxandioko saihebidetako tarte bat asfaltatzeko lanak. Hain zuzen ere, fase honetan, Gomilaz eta Morgola artean dagoen errepide zatian ari dira lanean. Asfaltatzeko lanak hiru aste barru amaitzea aurreikusten dute, Otxandioko Udalak ohar batean jakinarazi duenez. Bien bitartean, trafikoa zabalik mantenduko dute ibilgailuentzat, baina momentu batzuetan etenaldiak egin beharko dituztela ere abisatu dute, eta horrek trafiko emarian eragin dezaakeela eguneko une batzuetan.

# Mallabiko araztegia itxi eta hondakin urak Elgoibarkora bideratzeko lanen bigarren fasea martxan ipini dute

URA agentziak bere gain hartuko du azken fase honetako lanen kostu osoa: 1.005.000 euro guztira



Araztegia Mallabiko herrigunean dago.

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Mallabiko araztegia itxi eta herriko hondakin urak Elgoibarko araztegiara bideratzeko lanen azken fasea hasi dute aste honetan. Lan horien barruan, besteak beste, ponpaketa sistema berri bat ipiniko dute, hondakin urak hoditeria nagusira eramateko.

Beste hoditeria adar bi ere egingo dituzte: bata etorkizunean Areition eraikiko den Eibarko Kirol Hirira joango da, eta bestea Betearte zabortegira. Lanek zortzi hilabete inguru iraungo dute.

Bigarren faseak 1.005.000 euroko kostua izango du eta URA agentziak ordainduko du osorik.

Proiektua fase bitan banatuta dago. 2018an gauzatu zen lehenengo fasean, Mallabitik Ermura

arteko hoditeria sartu zuen URA agentziak, eta haren gainetik espalo berria eraiki zuen Bizkaiko Aldundiak. Lan horiek ere ez zioten gasturik suposatu Mallabiari, Aldundiaren eta URA agentziaren artean ordaindu zituztelako 1.200.000 euroak.

Mallabiko araztegiari alternatiba bat bilatzea beharrezkoa zela azaldu du Igor Agirre alkateak: "Zaharkituta dago, ez dabil ondo eta hatsa zabaltzen du herrian".

**Lanek zortzi hilabete inguru iraungo dute. Orduan itxiko dute betiko Mallabiko araztegia**



**Nordic Walking-eko ibilbide berriek paseatzaileak erakarri dituzte Izurtzara**

**IZURTZA • J.D.**

Abuztuan Euskal Herriko Nordic Walking sarera batu da Izurtza, lau ibilbideguz, eta ekimena harrera ona izaten ari da. Lorea Muñoz alkateak nabarmendu duenez, azken hileetan "geroago eta jende gehiago" joaten da Izurtzara pasealdiak egitera, batez ere konfinamendua amaitu zenetik, eta askok markatutako ibilbideak egiten dituzte.

Herriko aparkalekuko sarreran, ibilbideei buruzko informazioa jasotzen duen panela ipini dute. Ibilbide bakoitza kolore bategaz seinaleztatu dute eta koloreek zailtasun maila adierazten dute. Denak herrigunean hasi eta amaitzen dira.





Aterpetxea Olakueta plazan dago.

## Jaurlaritzak Berrizko aterpetxea eskaini du Moriako kanpalekuko errefuxiatuentzat

Berrizko arduradun baten berbetan, aterpetxea prest dago errefuxiatuak bertan hartzeko

**BERRIZ** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 8an, Lesbos uharterko Moriako kanpalekuak su hartu zuen, eta bertan dauden migratzaileen egoera oso larria da harrezkero. Hori kontuan hartuta, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak prentsaurrekoa eman zuen astelehen goizean, eta bertan jakinarazi zuenez, Jaurlaritza prest agertu da Moriako errefuxiatuak hartzeko. Sailburuak azaldu zuenez, Jaurlaritzak hainbat baliabide ditu errefuxiatuak hartzeko, eta horietariko

**Artolazabalen berbetan, Berrizen dagoen aterpetxea da Jaurlaritzaren baliabideetariko bat**

**Espainiako Gobernuari eta Europako Batasunari gutun bana bidali diete bitartekoen berri emateko**

bat Berrizko aterpetxea da. "Gaur egun bizi dugun egoera oso larria da eta erantzun humanitario solidarioa, azkarra eta premiazkoa behar du", esan zuen. Hori horrela, dagoeneko Espainiako Gobernuari eta Europako Batasunari gutun bana igorri dietela azaldu zuen, Jaurlaritzaren bitartekoen berri emateko. Gainera, Berrizko aterpetxea errefuxiatuak hartzeko prest dagoela baieztatu dio aterpetxeko arduradun batek ANBOTOrri.

Orain, Espainiako Gobernuaren eta Europako Batasunaren esku dago erabakia.

## Gerra sasoiaren emakumeek bizi izan zutena ezagutarazi gura du Aiert Zubigarai

Elorriarrak 'Emakumeon Memoria 1937' lana kaleratu du, 2022rako argitaratu gura duen komikiaren aurrelana



Aiert Zubigarai (3izkai) bere liburua hartuta.

**ELORRIO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aiert Zubigarai (3izkai) gidoiari eta komikigileak *Emakumeon Memoria 1937* liburua kaleratu berri du hainbat elkarte, historialari eta adituren laguntzagaz. Elorriarrak 2022rako kaleratu gura duen *Emakumeon memoria 1937, Inxortatik Artxandara* komikiaren aurrelana da, eta, besteak beste, Elgetako pasarte ageri da bertan.

Artistaren berbetan, gerra sasoiaren emakumeek izan zuten papera ezagutaraztea da ekimenaren asmoa. "Emakumeek zer bizi izan zuten aditzera ematea da lanaren asmoa", adierazi du idazleak.

Zubigarai herri bati eta protagonista bati eskainiko dio kapitulu bakoitza. Protagonistak fikziozkoak diren arren, sasoi hartako emakumeen bizipenetan dago oinarrituta lana. Tartean, protagonistaren izeba Soleren bizipenetan

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea Berrizen

Txapelketako kanporaketa saioa eguaztenean jokatu da, irailaren 23an, 18:30ean, Berrizko Kultur Etxean

**BERRIZ** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2020ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urrian hasiko da. Baina, aurretik, sailkapen fasea jokatu da, hamar saioz osatuta egongo dena. Sailkapen faseko saio bat Durangaldean jokatu da, Berrizen hain zuzen ere, irailaren 23an.

Kultur Etxean izango da, 18:30ean, eta bertsolari hauek igoko dira oholtzara: Iruri Altzerreka, Aitor Esteban, Axier Goñi,

Maidar Altuna, Mikel Goirienea eta Nahia Ibarzabal. Itxaro Juaristi abadiñarra arituko da gaitzartzaile.

Sailkapen fasean 60 bertsolarik parte hartuko dute guztira.

**Altzerreka, Esteban, Goñi, Altuna, Goirienea eta Ibarzabal arituko dira Berrizen bertsotan**

## Udazkenari ongi etorria egiteko azoka Arrazolan

Amillena Arrazolako Bentak eta Elorrioko Eixu Artisau Elkarteak antolatutako feria 10:30ean hasiko da

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udazkenari ongi etorria egiteko, azoka antolatu dute domekarako Arrazolan. Amillena Arrazolako Bentak eta Elorrioko Eixu Artisau Elkarteak antolatu dute. 10:30ean hasi eta 15:00etan amaituko da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hauek izango dira azokan parte hartuko duten artisauak: Eñaut ilustrazioa, Aiama enkua-

dernazioa, Garazi Magunagoitia, Birak, Xotchil, Eguzkilore artisautea, Agtz artelanak eta Kenika bitxiak.

**DJ-ak giroa berotzeko**

Gaineratu dutenez, DJ bi arituko dira domekako azoka girotzen: Miss Waymon eta L.A. Woman. 13:00etan hasiko dira musika ipintzen eta azokako giroa alaitzen, Amillena taberna dagoen plazan.

## Irailaren 24an grabatuko dute 'Herri txiki'-rako saioa Elorrion

Koronabirusa dela-eta, gonbidapenak beharko dira. Irailaren 21etik aurrera hartu daitezke, turismo bulegoan

**ELORRIO** • EKAITZ HERRERA

*Herri txiki, infernu handi* telebista saio arrakastatsuko kideak Elorrioren izan ziren, martitzenean, saioa grabatzen. Zuhaitz Gurutzaga eta Mikel Pagadizabal Elorrioko hainbat bizilagunekin egon ziren.

Datorren eguenean, hilaren 24an, egingo dute jendaurreko ekitaldia Xebastian Lizaso bertsolaria lagun hartuta. COVID-19a dela-eta, frontoiko ekitaldirako beharrezkoa izango da gonbidapena edukitzea. Emaizta urriaren 4an ikusi ahal izango da, ETB1en.



Programa hasierako sekuentzia herriko plazan grabatu zuten.



# Ikasturte hasieragaz batera Musika Eskolaren eraikin berria estreinatu dute

Zornotzako Zubiaur Musika Eskola Zelaieta parkean dago, Zelaieta Zentroaren ondoan



Zubiaur Musika Eskola berria Zelaieta parkean dago.

## ZORNOTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zornotzako Zubiaur Musika Eskola martitzenean zabaldu zituen ateak. Ikasturte berriari itxura eraberritu bategaz eman zioten hasiera gainera. Zornotzako Udaletik jakinarazi dutenez, Zelaieta parkean dagoen eraikin berri honi eskerrak musika eskolako eta dantza eskolako ikasleek "gune zabalagoak eta erosoagoak" dituzte.

**Musika eskolako eta dantza eskolako ikasleek "gune zabalagoak" dituzte eraikin berrian**

**Zornotzako Zubiaur Musika Eskola 500 ikasle baino gehiago hartzeko prestatuta dago**

Udaletik azaldu dutenez, prestatu duten eraikin berriak 500 ikasle baino gehiago hartu ditzake. Eraikinak 1.010 metro koadro ditu, hiru pisu eta beheko solairu bat.

Musika Eskola berria egiteko lanek 20 hilabete iraun dute, eta, guztira, Zornotzako Udalak 2,5 milioi euro bideratuko ditu.



Bihar egingo dute bilketa.

## Janari eta produktuen bilketa zapatuan, Zornotzako Elkartasun Sareak antolatuta

### ZORNOTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beharizana dutenei laguntzeko asmoz, Zornotzako Elkartasun Sareko kideak buru-belarri dabilta lanean. Elkartasun Saretik jakinarazi dutenez, despentsan zituzten janari eta produktuak amaitzen hasi zaizkie, eta, beraz, beste bilketa bat egitea erabaki dute.

### Bilketa supermerkatuetan

Bilketa zapatu honetan izango da, irailak 19, 10:00etatik 14:00etara bitartean. Herriko hiru puntutan egongo dira produktuak batzen: Luis Urrengoezka kaleko eta Nafarroa kaleko Eroskietan eta BM supermerkatuan.

# Garaiko Udalak Santa Katalinako bidegurutzea argitzeko lanak egin ditu

## GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Garaiko Udalak ohar bitartez jakinarazi duenez, orain lau urte hainbat osagai lapurtu zituzten Santa Katalinako bidegurutzeko instalaziotik, eta gune hori argizatu barik egon da harrezkero. Leku horretatik, herriko auzoetako hainbat jende igarotzen da: Miliukuakoak, Momoitioko San Juaneakoak, Goiuriakoak, Santa Katalina baselizaren inguruko baserrieta-

koak eta Garaiko herrigunekoak, besteak beste. Beraz, herritar horien guztien eta bertatik igarotzen diren gainerakoen segurtasuna bermatzeko, udalak berriro argiztatu du bidegurutzea.

### Mallabiko Udalaren laguntza

Lan hauek egiteko, Mallabiko Udalak emandako laguntza ezinbestekoa izan da, "laguntza ordainezina", esan dutenez.



Santa Katalinako bidegurutzea argiztatu dute.

## KURUTZIAGA ARTE EDERRETAKO AKADEMIA

Urrian ikas ezazu margotzen!

IKASTARO BEREZIAK!

Eskatu informazioa eragozpenik barik

Tel.: 946 030 527 / 679 657 676

[www.academiakurutziaga.com](http://www.academiakurutziaga.com)

[bellasartedurango@gmail.com](mailto:bellasartedurango@gmail.com)

Kurutziaga, 24 DURANGO

**Helduentzako ikastaroak**

**Haurrentzako ikastaroak**

## Bertako +, kalte ekologiko -

### Lortu erosketa-sorta bat!

#### Entrega-puntuak

**Madalena plaza:**

Irailaren 10ean eta irailaren 24an

10:00 – 13:00 / 17:00 – 20:00

**Ezkurdi plaza:**

Irailaren 17an eta irailaren 1ean

10:00 – 13:00 / 17:00 – 20:00

\*500 pack banatuko dira egun bakoitzeko.

**Kanpainen oinarriak:**

Kanpaina arrakasta eskatzen duen 50€-gaiala lortu da beharrezko gutxienez 1000 erosketa eta erabiltzaile baten onaraz. Bilketa irailak 17an zabalduko da eta erosten dituzten 2020ko irailaren 17tik irailaren 1ean auzoetako erosketa bakoitzeko diru berrituko adierazketa sortuko da. Gainera, informazio gehiago: [www.dendakbai.eus](http://www.dendakbai.eus)

Durango erosi eta ingurumena zaindu

Dendak Bai | 688 738 102 | [www.dendakbai.eus](http://www.dendakbai.eus)



# Irailaren 28ra arte luzatu dute Zapatu Blain izena emateko epea

Zapatu Blai ekimena orain urte batzuk ipini zen martxan Zaldibarren, zapatu arratsaldeetan gazteek eta umeek euskara erabiltzea ziurtatzeko helburuagaz



laz egin zuten gaztelekuko murala.

## ZALDIBAR • A.M.

Hirutik hamabira urte bitarteko gazteei zuzendutako programazioa prestatu dute aurtengo Zapatu Blai ekimenerako. Urriaren 3an izango da lehenengo saioa, eta orain irailaren 28ra arte egongo da bertan izena emateko aukera. Gazteak hamabost egunean behin batuko dira, 16:00-19:00 bitartean. Koronabirusaren eraginez, antolatzaileek neurri bereziak hartu dituzte. "Aukera ona da lagun artean euskaraz gozatzeko, baita umeak lagunarteko giro jatorrean heztekoa, izan ere errespetuko hartu-emanetan oinarritzen da ekimena. Horrez gainera, ekimen egokia da natura errespetatzen ikasteko eta parte hartzea bultzatzeko", azaldu dute antolatzaileek. Izen ematea udaletxean egin behar da, eta 40 euroko prezioa du.

## Soto eta Lujanbioren saioa

Bestalde, Maialen Lujanbio eta Julio Soto bertsoan arituko dira gaur, euskara sailak antolatutako bertso saioan. Idoia Anzorandiak ipiniko dizkie gaiak.



Extego gaztelekuaren eraikina.

# Etxegok ortugintza tailerragaz hasiko du ikasturtea lurretan

Irailaren 25ean gaztelekuaren obra proiektua aurkeztuko dute, eta gazteen iritzia batzeko saioa egingo dute

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ikasturte berriari ekiteko, egitaraua prest dute Etxego gaztelekuan. Gaurko, eskulan saioa antolatu dute, maskara berberagarriak egiteko. Eta, bihar, irailak 19, ortugintza tailerrean parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen diren gaztetxoek. Barazkiak, zuhaixkak eta belar

usaintsuak izango dituzte berba-gai, 11:00etan hasita.

Bestalde, hilaren 25ean, gaztelekuan hobekuntzak egiteko obra proiektua azalduko dute. Gazteen iritzia batzeko ere aprobetxatuko dute jardunaldia. 17:00etan hasiko da. Irailerako lotutako egitarua kale zinemagaz borobilduko dute, hilaren 26an.

# Abadiñoako Udalak lehiaketa publikora atera du Astolako igerilekuen estalki berriaren proiektuaren idazketa

## ABADIÑO • A.M.

Abadiñoako Udalak 65.000 euro bideratu ditu estalki berriaren proiekturako. Egitasmoaren diseinuaren idazketa lehiaketara atera du orain. Estalki berriaren diseinua lau hilabeteko epean amaituta egotea aurreikusten du udalak. Ostean, eraikuntza lanak lizitatuko dituzte. Udan igerilekuak erabili ahal izateko, estalkia osorik desmuntatu zuten udaberrian, Abadiñoako Udalak horrela erabakita.

**Estalki berriaren diseinua lau hilabetean egitea aurreikusi dute**

## Otsailetik itxita

Otsailaren 16an, Abadiñoako Udalak itxi egin zuen Astolako igerilekua, estalkiko zati bat jausi eta gero. Harrezkero, gaiak

zeresana eman du. Izan ere, estalkian ez ezik, igerileku handiko ontzian ere arazoak detektatu zituztela azaldu zuten udal arduradunek ekainean.

**Abadiñoako Udalak 65.000 euro bideratuko ditu estalki berriaren proiekturako**



Abadiñoako igerilekuak, udan.

**Estetika gida**

anboto

**NUKLEO**  
ileapaindegia  
946 582 996  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

Ile-apaindegia

**Ile-apaindegia**

**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491





Zornotzako gazteek jolasgune berria dute.

## Dagoeneko erabilgarri dago Larrean egin duten jolasgunea

Zornotzako Udalak 145.000 euro ipini ditu lanak egiteko

### ZORNOTZA • M.Z.

Zornotzan jolasgune berria zabaldu dute haurrentzat, Larrean. Udaletik jakinarazi dutenez, ingurunearen izaera berean integra-

tutako haur-jardueraz betetako ibilbidea da parkea. Jolasgunean, igo daitezkeen hiru zuhaitz, ro-kodromoa eta tirolina bat izango dituzte hurrek, besteak beste.

## Astolako igerilekuko lanen proiektua, lehiaketara

### ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Abadiñoko Udalak lau hilabeteko epea aurreikusten du proiektua diseinatzeko. Horren ondoren, eraikuntza lanak lizitatuko ditu. Udan igerilekuak erabili ahal iza-

teko, estalkia osorik desmuntatu zuten; otsailaren 16an, udalak itxi egin zituen igerilekuak.

Bestalde, Abadiñoko Udalak proiektura 65.000 euro bideratu dituela azaldu dute.

## Iritzia

### AURTEN EZ DUGU SAN MIGEL JAIRIK OSPATUKO

Hertzainak taldeak zioen bezala, ez dira betiko garai onenak, eta mezu honen bidez iurretareki jakinarazi gura diegu aurten ez ditugula sanmigelak ospatuko. Pena handiz hartu dugu erabaki hori, baina denon osasunerako onena dela pentsatuz. Herritarrei ere zentzuz jokatzeko deia egin gura diegu.

COVID-19aren epidemiaren eraginez bizitako konfinamenduaren ostean, Jai Batzordeko kideak elkar-tzen hasi ginen egoera aztertzeko. Argi geneukan aurten ez zela jairik egingo. Hala ere, kulturagaz dugun konpromisoari jarraituta, gure herrian hain garrantzitsuak diren data hauen bueltarako kultur egitarau txiki bat antolatzen hasi ginen. Orainsu, egun horietan ekintzarik ez garatzeko irizpidea ezarri du udalak eta, beraz, Jai Batzordeak prestatutako kultur eskaintza udazkenean zehar zabalduko da. Datozen egune-tan emango dugu horren berri.

Kultura segurua eta beharrezkoa da. Bizi dezagun udazken koloretsu bat, urte berriagaz sanmigelak berriro loratuko diren esperantzan. Segi dezagun denok jai herriko eta parte-hartzaileen aldeko lanean, eta gazte belaunaldi berriak horretara batzera animatu nahi ditugu.

Zaindu gaitezen. Besarkada bat COVID-19aren ondorioz sufritzen ari direnei.

Gora etorkizuneko sanmigelak!

Miren Abasolo Txabarri Iurretako Jai Batzordearen izenean.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tar-teak barne).

Elorrioko Udalak, uztailean zehar, bat egin zuen "Durangaldea estrategia: Cycle-Friendly Employer Lurralde" konpromisoarekin. Honen bidez bizikletaren erabilera bultzatzea gura du lankidetzara publiko-pribatu bidez.

Asmo honekin, Udalak erronka bat bota die elorriarrei irailan zehar modu jasangarrian mugitzeko.

Zertan datza?

Elorrioko Udalak bizikleta elektriko bat zozkatuko du "30 egun bizikletan lanera" erronkan parte hartu eta gutxienez honako hauek egiten dituzten artean:

- Egunero bizikletan joan-etorri bat irailan zehar.
- 30 kilometro egitea gutxienez hilabete osoan zehar.

Zelan parte hartu?

- Jaitsi Bikefriendly appa eta sortu zure erabilizailea.
- "Grupos" atalean "Elorrio" bilatu eta bat egin taldearekin (abuztuaren 31tik aurrera aurkituko duzu).
- Irailan zehar joan-etorri bat bizikletan egin behar duzun bakoitzean "Crear ruta" eta "Ciclismo" sakatu (gogoratu lokalizazio-baimenak aktibatu behar dituzula).
- Ibilbidea egin ostean Stop sakatu eta gorde joan-etorria. Barrien zure horman partekatu honako hashtag hauek erabiliz: #30DiasenBicialTrabajo eta #Elorrio.

Irailan, apur bat besterik ez bada ere, egunero eragin pedalei. Ez du axola distantziak, arazoak edo helmugak, eta partekatu besteekin bizikletan mugitzearen esperientzia positiboa.



# BURUARI KLIK!





# TOPATU ITZATZU




Azpiko irudian 10 estralurtar daude. Gai izango zara denak topatzeko?







# LABIRINTOA





# TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu planetak txikitik handira.  
Gogoratu eguzkia ez dela planeta bat.





# ZEIN DA ZEIN?

Espaziontzi bakoitzari bere itzala dagokio.





# TOPATU BIKIAK

Extralurtar guzti hauek bikiak dira,  
denak topatzeko gai izango zara?





# DADOA

Beheko dado guztietatik bakarra dago ondo. Zein da?



1



2



3



4



5



6







# ESKULANA

## Beharrezko materiala


- Koloretako kartulinak
- Komuneko paperaren kartoia
- Artaziak
- Arkatza
- Errotulatzaila
- Kola zuria



Itsatsi komuneko paperaren kartoia gainean nahiago duzun kartulina.



Beste kolore batzuekin argazkian ikusten dituzun formak egin.



Itsatsi nahiago dituzun moduan, argazkian adibide bat daukazu eta espaziontziazen punta egin.



Kartoian lau ebakuntza txiki egin artaziekin.



Ipini ebakuntza horietan espaziontziazen azkeneko piezak, argazkian ikusten den moduan.



Espaziontziazen punta itsatsi. Kito, espaziontzia prest daukazu jolasteko!



# UDAKO 6. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto   
komunikabideak

# Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Bozkatu [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean  
**Irailaren 22ra arte**

ANTOLATZAILEA

anboto   
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK

  
DURANGO

  
Garaiako  
Landetxea

  
databost  
informatika & telekomunikazioak



## Animaliak erdigunean

ANTZERKIA **ELORRIO :: Irailak 18**

### 'Excalibur y otras historias de animales', gaur, Arriolan

Las Hermanas Picohueso antzerki konpainia izugarriko sormen lan batez dator Elorriora: *Excalibur y otras historias de animales*. Telebistako zuzeneko saio bat irudikatuko dute oholatza gainean, bere zalaparta eta guzti.

Ornitorringo du izena Dolly ardiak zuzentzen duen elkarriketa saioa, espaziotik propio

etorritako Laika txakur emearen laguntzagaz, eta gizon-emakumeen axolagabekeriagaitik eta mesfidantzagaitik izandako biktimak ipiniko ditu erdigunean. Biktimak animaliak dira, giza helburu zalantzarrien eraginez hildako animaliak. Arriola antzokian egongo da ikusgai antzezlan, gaur, 20:30ean.



#### Irailaren 18an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Al otro lado'**  
(Zanguango Teatro),  
20:00etan, eskolako patioan edo Olakueta plazan.

**ZALDIBAR bertsoak**  
**Bertso saioa: Maialen Lujanbio eta Julio Soto bertsolariak**, 19:00etan, udaletxeke plazan. Gai jartzailea: Idoia Anzorandia. Euria egiten badu, herri eskolako pilotalekuan egingo dute bertso ekitaldia.

#### Irailaren 19an

**ZORNOTZA musika**  
**Musbika Ensemble**,  
20:00etan, Andra Mariko basilikan. Eleizatan egitarauaren barruan

#### Irailaren 20an

**ATXONDO azoka**  
**Artisau Azoka**, 10:30etik 15:00etara, Arrazolako plazan. Udazkenari ondoetorria emateko azoka, Arrazolako Amilena Bentak eta Elorrioko Eixu elkarteak antolatuta.

**Miss Waymon + L.A. Woman DJ-ekin** binilo pintxada, 13:00etan.

**DURANGO antzerkia**  
**'Safari' (La Baldufa teatre)**, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ZORNOTZA musika**  
**Beñat Egiartek, Olatz Saituak eta Elena Cadiernok eskainitako kontzertua**, 19:30ean, San Juan Bautista basilikan. Eleizatan egitarauaren barruan.

#### Irailaren 23an

**BERRIZ bertsoak**  
**Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: Aitor Esteban, Axier Goñi, Iuri Altzerreka, Maider Altuna, Mikel Goiriena eta Nahia Ibarzabal**, 18:30ean, Kultur Etxean.

#### Irailaren 24an

**BERRIZ dantza**  
**'Mulier' (Maduixa dantza konpainia)**, 20:30ean, eskolako patioan edo Olakueta plazan.

#### Irailaren 20ra bitartean

**DURANGO erakusketa**  
**Durungaldeko hainbat artistaren lanak**, Ezkurdi erakustaretoan. Durungaldeko Artista Elkarteak antolatuta.

#### Urriaren 4ra bitartean

**DURANGO erakusketa**  
**'Sorgiñak' 42 emakumeren lanak**, Arte eta Historia Museoan. Bisita gidatua antolatu dute, irailaren 18rako, Cristina Gutierrez Meursen eskutik.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinea

### :: Durango ZUGAZA

• **Pinocho**  
barikua 18: 19:00/22:00  
zapateria 19: 17:30/19:00/20:30  
domeka 20: 16:30/17:00/20:00  
astelehena 21: 18:30/20:00  
martitzena 22: 19:30  
eguaztena 23: 19:00

• **Salir del ropero**  
barikua 18: 19:30/22:00  
zapateria 19: 19:00/22:00  
domeka 20: 19:30  
astelehena 21: 18:00/20:00  
martitzena 22: 20:00  
eguaztena 23: 19:30

• **Padres no hay más que uno 2**  
barikua 18: 19:30/22:00  
zapateria 19: 17:00/22:00  
domeka 20: 18:15/20:30  
astelehena 21: 18:00  
martitzena 22: 20:00  
eguaztena 23: 19:30

• **Koko dragoi txikia oihanean**  
zapateria 19: 17:00  
domeka 20: 16:30

### :: Elorrio ARRIOLA

• **Las niñas**  
zapateria 19: 22:00  
domeka 20: 20:00  
astelehena 21: 20:00

### :: Zornotza ARETOA

• **Las niñas**  
barikua 18: 20:15  
zapateria 19: 20:00  
domeka 20: 20:00  
astelehena 21: 20:15

• **Scooby Doo**  
zapateria 19: 17:00  
domeka 20: 17:00

**EKI  
NTZ  
AK**  
biblioteka

2020  
2021

**IZEN-EMATEA:**  
irailak 21-30 erroldatuak  
irailak 28-30 ez erroldatuak

**PLAZA MUGATUAK • DOAKOAK**

Bibliotekan, H.A.Z.-en, emailez eta online  
[bibliotekakoekintzak@iurreta.eus](mailto:bibliotekakoekintzak@iurreta.eus)



**Zure iragarkia jarri nahi duzu?**

[publizitatea@anboto.org](mailto:publizitatea@anboto.org)  
94 621 79 02

**anboto**  
komunikabideak



# AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta  
ikas dezazun nahi du.



Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.



## EUSKARA-IKASTAROAK

# Zatoz AEKra

Euskalduntze maila guztiak (A1,A2, B1, B2,C1)

4. maila (C2)

Online ikastaroak

Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango, Santanoste 4, behea · 94 681 73 49/607 159 205 · [abarrak@aek.eus](mailto:abarrak@aek.eus)

Elorrio /Atxondo, San Juan 23, behea · 607 600 901 · [abizari@aek.eus](mailto:abizari@aek.eus)

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · [zornotza@aek.eus](mailto:zornotza@aek.eus)

Berriz / Zaldibar / Abadiño / Iurreta / Izurtza / Mañaria

662 966 827 · [durangaldekoaek@aek.eus](mailto:durangaldekoaek@aek.eus)

## DIRU-LAGUNTZAK

**EUSKO JAURLARITZA:**  
mailaren bat egiaztatuz gero

**BIZKAIKO ALDUNDIA:**  
deskontu-bonuak

**UDAL GUZTIEK**



# “Sorkuntzak berme batzuk behar ditu; buruak lasai egon behar du, ez fakturretan pentsatzen”

'Ibaiertzeko ipuina' Oihane Amantegi zornotzarrak publikatu duen lehenengo eleberria da; Elkar argitaletxeagaz kaleratu du

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

**Oihane Amantegi zornotzarrak 'Ibaiertzeko ipuina' kaleratu du aurren, bere lehenengo eleberria. AEBetako hegoaldeko bazter galdu bateko ibaiertz batean bizi den jendeari buruzko istorioa dakar liburuak, besteak beste. Elkar argitaletxeagaz kaleratu du.**

**Koronabirusak planak aldatu arren, zelako harrera izan du liburuak?**

Feedback ona jaso dut orokorrean. Asmoa nuen herriko liburutegian aurkezteko, eta orain arte aukerarik izan ez badut ere, udazkenean aukera hori baliatzen ahaleginduko gara. Udaberriko katalogoan atera bada ere, atzeratu egin da plazaratzea, pare bat hilabete. Ez nuen espero, jorratzen den gaigaitik, baina udako irakurketa bihurtu da, hein batean.

**Gai potoloari eutsi diozu. Zelan ikusten da heriotza haur baten ikuspuntutik?**

Gozotasun handiagaz, suposatzen dut. Idatzi ahala konturatu nintzen horixe zela ikuspuntu egokia istoriorako. Oso intuitiboki hasi nintzen, pasarte solteak idazten eta. Koherentzia bat zuela ikustean erabaki nuen umearen ahots hori mantentzea. Argi nuen heriotzari buruz berba egin gura nuela, baita ikuspuntua umearena izatea gura nuela ere. Inozentzia horretatik kontatu gura nuen.

**Espazio geografikoa elementu garrantzitsu bilakatzen da istorioan.**

Elementu batzuek indarra hartzen dute istorioak aurrera egin ahala. Esparru geografikoa azale-

tik agertzen da, ez dakizu mapan non ipini, baina atmosfera oso jakina da. Kontzienteki harturiko erabakia da. Zehaztasun handirik eskaini barik, irakurleak jolas-teko, imajinatze, ariketa hori egitea bilatzen nuen. Umearen ahotsetik eta inozentziatik kontatu gura nuen, irakurleak ere imajinazioagaz irakurtzeko.

“

**Oso argi nuen heriotzari buruz berba egin gura nuela, ume baten ikuspuntutik”**

**Idazterako orduan ere, jolas moduan hartu duzu? Disfrutatu egin duzu idazten, ala sufritu?**

Bietatik egon da (barrez). Sufritu, beharbada, ez dut sufritu idazterakoan. Asko disfrutatu dut. Pasarte batzuk berrirakurtzerakoan, idatzi nituen momentu horretan disfrutatzen ikusten dut neure burua. Une batzuetan zailtasunak izan nituen, noski, ideia batzuk lotzerakoan, baina guztiak enkajatu ahala gozatu egiten nuen.

Musika asko ere entzun dut, istorioa musikari ere lotuta dagoen heinean. Liburuaren amaieran hiru abesti agertzen dira, testuan zehar txertaturik doazenak. Niri, adibidez, ez zait gustatzen musika entzutea irakurtzerakoan, baina



**Oihane Amantegi Uriarte**

Idazlea  
Zornotza | 1985

egongo da jendea irakurri ostein abesti horiek ipiniko dituen, edo irakurri aurretik, atmosfera egiten joateko. Irakurlearen esku uzten dut hori.

**Lehenengo liburua izatera, igarri duzu presiorik?**

Ez. Idazten hasi nintzeneko momentua lasaia izan zen, ez ariketa kontziente bat. Gero, sariketa pare batera aurkeztu nuen, eta horrek istorioa egituratzen lagundu zidan; asko lagundu zidan gaur egungo itxura emateko. Azken ukitua eta egituraketa editoreagaz batera egin nituen; ordurako nahiko borobildua zegoen, eta ez nuen batere presiorik eduki.

Lehenengo berbak 2014koak izan daitezkeela uste dut. Hilabe-

“

**Lehenengo berbak 2014koak zirela uste dut; tarteka, gehiago edo gutxiago idatzi dut”**

te batzuetan oso presente nuen idaztea, eta beste batzuetan apur bat gutxiago. Horrek arnasa hartzen eta finkatzen lagundu diola esango nuke.

**Idatzi duzu ezer azken hileetan, itxialdian?**

Ez. Oraintsu hasi naiz berriro idazten. Beharbada baten batek lortuko zuen, baina desmitifika-

tu egin gura dut itxialdiaren eta sorkuntzaren arteko lotura. Idazle on sorkuntza baldintzak nahiko prekarioak izan ohi dira oro har, eta prekaritate egoera horretatik idaztea ez da erraza. David Lynch-en *Atrapa el pez dorado* liburuan irakurri nuen buruak lasai egon behar duela sortzeko, baldintza egokiak behar dituela. Bere eskolako naiz ni, sorkuntzak ekosistema seguruago bat eskatzen du nire ustez, berme batzuk. Ezin zara egon arduratuta fakturak zelan ordaindu. Eta kalitatezko denbora eskatzen du, batez ere. Zaila da garbantzuak lapikoratzea beste hainbat lanean ibili behar baduzu. Eta hori aldarrikatu egin behar dela uste dut, gainera.

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etanri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda [info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)

#salduenak

7<sup>o</sup> AITAREN ETXEA Karmele Jaio (Elkar)

2<sup>o</sup> IBAIERTZEKO IPUINA Oihane Amantegi (Elkar)

3<sup>o</sup> ENE BAITAN BIZI DA E Maddi Ane Txoperena (Elkar)

Eskera WhatsApp-er eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-er ordaindu eta etxean jaso

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



# Hasi dira Arandoño kultur elkartearen organo kontzertuak

Arandoñok sei kontzertu antolatu ditu sorta berrirako; eguenean izan zen lehenengoa



Montserrat Torrent organista eta Xabier Arana Arandoño kultur elkartearen kidea.

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Eurentzat ere urte "gatxa" izaten ari dela aitortu arren, Arandoño kultur elkarteak aurrerapausoa ematea erabaki du. "Segurtasun neurriak beteta, astiro-astiro, baina hasi da bueltatzen kultura. Horregaitik erabaki dugu guk ere, urtero lez, organo kontzertu zikloa antolatzea", azaldu zuen prentsaurrekoan Xabier Arana elkartearen presidentek. Urriaren 23an, Esteban Elizondok eskainiko du emanaldia. Horrez gainera, azaroan eta abenduan bina kontzertu egongo dira; azaroaren 6an Jesús Martín Morok eskainiko du kontzertua,

eta 27an Thomas Ospital organista baxenafartarrak. Gerardo Rifonek zuzeneko bi eskainiko ditu abenduan, bata Donostiako Orfeoi Gazteagaz, eta bigarrena Lucia Gomez mezzosopranoagaz. Andra Marian eta San Frantziskon izango dira kontzertuak.

Kontzertu sortako lehenengoa eguenean izan zen. Montserrat

**Montserrat Torrent 94 urteko organistak eman dio hasiera ziklo berriari, egueneko kontzertuagaz**

Torrent organista arduratu zen. Eguenean eskaini zuen kontzertua 94 urteko musikariak.

## Bosgarren aldia

Torrent organista "ilusio handiagaz" itzuli da Andra Marira. 94 urteagaz, eta koronabirusak eragindako osasun krisi betean egonda ere, ez dio kontzertuak emateari utzi gura. "Beldur apur bat ere badut, noski, osasun arazo larria da hau, baina ilusioz beterik jarraitzen dut", azaldu du organistak. Adinekoekiko "mespretxuagaitik" ere jarraitzen du jotzen, "errespetua eta ulermena" exijitzeko.

# 'Limbo' eta 'Nora' Donostiako Zinemaldian egongo dira

Iruñe Gurtubai elorriarrak ekoizturiko 'Limbo' pelikula 'New directors' atalean lehiatuko da; bigarren lana du

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Ben Sharrock eskoziarrak zuzenduriko eta Iruñe Gurtubai elorriarrak ekoizturiko *Limbo* pelikula Donostiako Zinemaldian egongo da zuzendari berririk onenaren saria irabazteko lehian. Oraintsu, Torontoko TIFF jaialdian estreinatuta dute, eta Gurtubairen esanetan pozik daude filmak jasotako harreragaz. Pelikulak Omar gazte siriarraren istorioa dakar; Eskoziako irla txiki batean harrapatuta dago

Omar, asilo eskaera onartuko dioten zain. Sail ofizialean lehiatuko da *Limbo*.

*Nora* Lara Izagirrearen lan berria da. *Un otoño sin Berlín* lehenengo lan luzeagaz estreinatuta eta gero, bigarren honetarako *road trip* bat prestatu du zornotzarrak. 30 urteko gaztea da Nora; aitona argentinarragaz bizi da, eta aitona hil ostean, harek utzitako autoan bidaia bat egitea erabakitzen du. Zoriontasuna bilatzeko bidaia bat bilakatuko da.




'Limbo'

## Gai librean

### Jarrai dezagun blaitzen

Azken hilabeteotan Durangaldeko hainbat herritan —Euskal Herri osoan, oro har— izan ditugun kultur zikloak arrakastatsuak eta harrera onekoak izan dira. Bertatik bertara bizitzea tokatu zaidan Durangoko "Uda kulturaz blai"-rekin, adibidez, izenak dioen bezala, kulturaz blaitu da herria, eta adin eta gustu guztietarako egitarau zabalaz gozaten ikusi ditugu herritarrak. Eskertuta azaldu dira asko eta asko, oporretan urrutira joateko gogorik gabe, inguruko herrietan doako kultur eskaintza izateaz. Baina doako eskaintza aipatzen den bakoitzean ziztada bat sentitzen dut barrenean, ongi baitakigu askok, ekitaldi horiek ez direla —eta ez dutela izan behar— debaldekoak. Azken boladan inoiz baino garrantzi handiagoa hartu duten erizain eta medikuek bezala, euren lana ongi burutzeko



Ihintza Orbegozo Igartua Plateruena

**Eskertuta azaldu dira asko, oporretan urrutira joateko gogorik gabe inguruan kultur eskaintza izateaz**

**Makina bat diru, denbora eta ilusio inbertitu du kultur gintzan ari den orok, eta askoren ogibidea ere bada**

ikasketak egin dituzte teknikari eta produkzioko langileek, eta etxe azpiko okinak egiten duen ogi goxo hori ontzen denbora pasatzen duen bezala, mimoz eta denboraz ontzen dituzte beraien sorkuntza lanak eta abileziak musikari, dantzari eta bertsolariek, besteak beste.

Makina bat diru, denbora eta ilusio inbertitu du kultur gintzan ari den

orok, eta askoren ogibidea ere bada. Aurtengo udan, herritarrek kulturaz doan gozatu ahal izateko, udalek lan horiek guztiak ordaindu dituzte, eta joan nahi zuen oro gonbidatu dute; baina etorriko dira inongo erakundek ordaindu gabeko kultur eskaintzak, eta horiek aurrera eraman ahal izatea guztioi dagokigu. Etxetik atera ezinik egon ginen denbora luze hartan auzoko okina eta alboko baserritarra zeinen garrantzitsuak diren ikasi genuen bezala, gogora dezagun musika, antzerki, dantza edo artelan batek eman ziguna —eta ematen diguna gaur egun ere—, entretenimenduz gain gure izaera osatzen baitute. Horregatik, kultur ekitaldi baterako sarrera ordaindu behar denean, pentsa dezagun lansarien hondartxo bat dela, gogora dezagun udan gonbidatu gaituztenean zeinen ongi pasatu dugun bertan, eta jarrai dezagun kulturaz blaitzen datorren aro honetan ere!



# "Tourmaleten luzerak kezkatzen nau batez ere; denbora askoan atzerantza ibilita apur bat zorabiatu egiten zara"

Ruben Gorospe maiatzean iragarritako erronka gauzatzen ahaleginduko da domeka honetan: 17 kilometroko luzera duen Tourmalet mendatea bizikletan atzerantz igo gura du



Ruben Gorospe, erronka prestatzeko entrenamendu saio batean.

## BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO

Osasun krisian gehien sufritu dutenen omenez, Tourmalet mendate mitikoa bizikletan atzerantz igotzen ahaleginduko zela iragarri zuen Ruben Gorospe txirrindulari ohiak (Mañaria, 1964) maiatzean. Hileetako entrenamenduen ostean, domeka honetan egingo du saiakera.

Alderik gogorrenetik igoko du, La Mongie-tik: 17 kilometro, atsedetik hartzeko tarterik barik. "Tourmaleten luzerak kezkatzen nau batez ere, aldatsak baino gehiago; denbora askoan atzerantza ibilita apur bat zorabiatu egiten zara. Gogoan dut orain hile eta erdi Valdezaray igo, bizikletatik jaitsi eta ebatu egin behar izan nindutela, mareatuta nengoelako", kontatu du.

Ordu bi inguru iraungo duen erronkari aurre egiteko, "konfiantzagaz" eta "ilusioz" sentitzen

dela dio, hileetan entrenatzen dabilelako. Lehenengo egunak izan ziren gogorrenak. "Aurrerantza hasi nintzen. Denbora luzea neraman bizikletan ibili barik. Kasik zeretik hasi nintzen", onartu

**Azken hileetan 12 kilotik gora kendu ditu. "82 kilo nituen eta orain 70etik behera nabil"**

**Osasun-krisian gehien sufritu dutenei ez ezik, Bautista Onaindiari ere eskaini gura dio saiakera**

du. Handik hilabete ingurura hasi zen atzerantz. Inguruko "makina bat" mendate igo ditu, eta Kantabria ingurura ere jo du, Lunada

eta halako mendate gogorragoen bila. Denbora honetan, 12 kilotik gora kendu ditu. "82 kilo nituen eta orain 70etik behera nabil", dio.

Domekan ez da bakarrik egongo. Lagun bi bere aurretik joango dira bizikletan, eta beste bi atzetik. Marino Lejarreta txirrindulari ohi berriztarra izango da eurretari bat. Horrez gainera, autobus bete lagun joango da animoak emateko.

Osasun krisian gehien sufritu dutenei eskaini gura die igoera, baina egoera honeguz zerikusirik ez duen pertsona bat ere badu go-goan: Bautista Onaindia 'Treinta' bizikletazale ezaguna. 'Treinta' Iurretako Oromiño auzoan jaio zen, eta gazterik Mañarian bizi izan zen 70 eta 80ko hamarkadetan, Urkiola mendatea bizikletan atzerantz igotzeko ohitura zuelako. "Errepide ondoan bizi nintzen eta askotan ikusten nuen. Berari ere eskaini gura diot", adierazi du Gorospek.



Gurutze Frades eskumako aldean, Santanderreko podiumean.

## Gurutze Frades: "Gogor eta lehiakor sentitu naiz"

Aspaldiko partez lehiara itzuli da triatloilari iurretarra eta hirugarren tokian amaitu du Santanderreko Triatloia

### TRIATLOIA • J.D.

Jon zen domekakoa egun garrantzitsua izan zen Gurutze Fradesentzat. Ez lortutako emaitza onarengaitik bakarrik, baita denbora askoren ostean berriro lehiara bueltatu zelako ere. "Azkenean dortsal bat ipini ahal izan dut aspaldiko partez. Pozik nago berriro triatloiaz gozatu izanaz", adierazi du triatloilari

iurretarrak. Azken hileetan bere kabuz entrenatzen jardun du eta, Santanderren lortutako emaitzak erakusten duen moduan, sasoiko bueltatu da. Hirugarren tokian amaitu eta podiumera igo zen. Igerian eta bizikletan gustura sentitu zen, eta korrika egitea kostatu zitzaion gehien. Oro har, "indartsu eta lehiakor" sentitu zela dio.

## June Arbeo 11. Espainiako txapelketan, eroriko eta guzti

Azken-aurreko itzulian izandako estropezu batek aurrerago amaitzea eragotzi zion 3.000 metroko oztopodun proban

### ATLETISMOA • J.D.

Joan zen asteburuan Espainiako Atletismo Txapelketa -maila absolutua-, lehiatu zen, Madrilén. June Arbeo lan ona egiten zebilen 3.000 metroko oztopodun proban azken-aurreko itzulian erori zen arte. Horrek 11. postua baino aurrerago amaitzea eragotzi zion. Emaitzaz haratago, "sentsazio onak" izan zituela azaldu du. Asteburu bi barru beste aukera bat izango du, oraingo honetan 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan.





**OINETAKO PATOLOGIAK**  
**NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK**  
**OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404



**Egoera berezi honetan**  
**MAKALLAU SALTSAN**  
**KATERIN zabalik dago!**

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

📞 688 773 205 / 688 734 329

🌐 [saltzan.com](http://saltzan.com) 📱 #etorritadastau #unezaitetanerezureondoan



# Sorginen Lasterketako korrikalariak lehiatzeko gogoz daude eta maila handiko parte-hartzea izango da bihar

Izen-ematea beteta dago eta 300 parte-hartzaile egongo dira Axpeko irteera puntuan; Euskal Herriko korrikalaririk onenatarikoak joango dira, Oihana Azkorbebeitia abadiñarra eta Imanol Goñi earra, beste hainbaten artean

**MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO**  
Zailtasunak zailtasun, Sorginen Lasterketako antolatzaileek probagaz aurrera egitea erabaki dute eta korrikalariak gogotsu erantzun diote erabakiari. Izen-ematea beteta, bihar 300 parte-hartzaile batuko dira Axpeko irteera puntuan. Kantitatea ez ezik, azpimarratzekoa da kalitatea ere, Euskal Herriko korrikalaririk onenatarikoak batuko dituelako.

Hasieran kezkatuta zeuden arren, antolatzaileak pozik daude lasterketak izan duen erantzunagaz. "Dudak genituen. Egoera zein zen ikusita, pentsatzen genuen beharbada jendea beldurtu egingo zela. Baina hasieratik ikusi genuen bazegoela interesa eta ahaleginak merezi zuela. Jendeak lasterketaren inguruan galdetzen zigun. Lasterketa askorik ez dagoelako-edo, gogotsu daude", adierazi du Jon Aranburu probako antolatzaileetarikoa batek.

## Podiumerako hautagaiak

Emakumeetan, Oihana Azkorbebeitia, Eztizen Duque, Nahia Quincoces, Garazi Sampedro, Ainara Urrutia, Maider Fraile eta Ainara Uribarri aipatu daitezke, besteak beste, podiumerako borrokarako. Azkorbebeitia abadiñarrak eta Sampedro atxondarrak badakite Sorginen Lasterketa irabaztea zer den, gainera. Onditx Iturbe ere sar-



Izen-ematea beteta, 300 korrikalarik parte hartuko dute biharko lasterketan.

tu beharra dago hautagaien artean. Igorretarra sasoiko dago eta orain asteburu bi Trapagarango kronoigoera (7,2 km) irabazi zuen, Oihana Kortazarren aurretik. Gizonetan, Imañol Goñi iazko irabazleagaz batera, maila handian dabilzan Xabier Zarranz, Asier Larruzeta eta Beñat Katarain, eta eskualdeko hainbat korrikalari nabarmendu daitezke: Gartzen Elejabarrieta abadiñarra, Gontzal Murgoitio elorriarra eta Aitor Ajuria eta Markel Urigoitia otxandiarrek, esaterako.

**"Dudak genituen, baina hasieratik ikusi genuen bazegoela interesa lasterketan"**

**Antolatzaileek uste dute ez dagoela favorito argirik eta podiumerako borroka estua izango dela**

"Hiru-lau izen kenduta, Euskal Herriko korrikalaririk onenatarikoak etorriko dira Sorginen Lasterketara, eta ez dago favorito argirik. Borroka estua egon daiteke", uste du Aranburuk.

## Anboto tontorretik

Aurten, azken urteetako ibilbideari eutsiko diote; hau da, Anboto tontorretik igaroko dira. Axpetik abiatu, eta Andastotik Zabalaundira igoko dira, eta han Anboto tontorrerako igoera hasiko dute. Ondoren, Asun-

## Korrikalariak taldeka eta distantziak zainduz irtengo dira

Aurten, inoiz baino goizago hasiko da Sorginen Lasterketa, 08:50ean. Horren arrazoia da ez direla denak batera irtengo. 40 korrikalariko taldeetan banatuta abiatuko dira eta 10 minutuko tartea utziko dute talde batetik bestera. Segurtasuna bermatzeko diseinatu duten protokoloa neurriariko bat da. Horrez gainera, jan-edana etxetik eramateko eskatu diete korrikalariari, eta hornidura puntuak benetan beharrezana duten korrikalariarentzat (deshidratazioagaitik, kalanbreengaitik...) baino ez dituzte ipiniko.

Zaleentzat ez dago protokolorik, baina maskarak ipintzeko eta distantziak mantentzeko eskatzen diete antolatzaileek.

tza aldetik jaitsiko dira. Lasterketa azkenengo igoera Artolarakoa izango da, eta handik Axpeko helmugara joko dute. Guztira, 17,8 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboko ibilbideari aurre egingo diote parte-hartzaileek.

Eguraldi txarra egiten badu, ez dira Anbototik igaroko, eta Urkiola-mendi igoko dute.

Sorginen Lasterketako XIII. aldiko irabazleak 250 euro eskuratuko ditu; bigarren sailkatuak 175 euro eta hirugarrenak 100 euro.

## Jokaldia

### Egin dezagun barre

Urte madarikatu hau ez dugu hain erraz ahaztuko, ez. Azkenaldian, zenbakien esanahi sinbolikoetan sinisten dutenekin oroitzen naiz. Izan ere, a ze kasualitatea 2020 honetan Sorginen Lasterketak hamahirugarren aldia beteko duela. 13 zenbakiak zorte txarra dakarrela uste duenak erotzat hartuko gintuzke lasterketaren prestaketekin aurrera egitea erabaki genuenean. Agian arrazoirik ez zaio faltako... Bertatik bertara bizi izan dugunok soilik dakigu zenbat eztabaida, burukomin eta kezka izan ditugun martxotik hona. Zenbat iritzi kontrajarri ingurukoon artean! Nik neuk ere izan dut lasterketa bertan behera uzteko gogo. Lasaitasuna ordainean.

**"Bertatik bertara bizi izan dugunok soilik dakigu zenbat burukomin eta kezka izan ditugun martxotik hona"**

**"Zentzuz eta neurriak betez, gustatzen zaiguna egiten gozatu eta gozaraztea da gure helburua biharko"**

Baina, zer arraio! Lanera bidean nindoan batean, irrastian Iker Ga-

lartzari entzundakoak iltzaturik geratu zitzaizkidan, Gure Zirkua martxan jartzeko indarrak nola bildu zituzten azaldu zueneko. Kezka eta beldur denen gainetik, birus petral honen eraginen itzaletan argi printza batzuk ateratzeko gogo gailendu zitzaien Joseba Usabiagari, Iker Galarzari eta lagunei: "Aberastu daitezela krisi honen atzetik interes ilunenak dituztenak, baina utz gaitzela beste ordu pare batez barre egiten", zioen Ikerrek.

Bada, hori egin dezagun! Zentzuz eta neurriak betez, gustatzen zaiguna egiten gozatu eta gozaraztea da gure helburua biharko. Atxondorentzat eta ingurukoentzat pizgarri txiki bat izan dadila.



Garazi Sampedro Arando  
Mendi lasterketak





# DURANGALDEKO TXOKOAK



## Momotioko San Juan ermita eta nekropolia

Garaiko txoko eder honek zentzumen guztiak pizten ditu. XII. mende inguruko ermita dago bertan eta IX. eta X. mendeko hilarriak daude ikusgai. Asteburuetan makina bat herritar joaten da hango askaldegietan egun-pasa egitera. Bertan Durangaldeko panoramikorik ederrenetariko bat dago.





## IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)





**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

## //AUKERA

**KURUTZIAGA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E=E. **135.000 €**

**IZURTZA:** 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Txakur-txabolagaz.

C.E.E = **80.000€**

**ATXONDO:** 85 m2. 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. 18 m2-ko lonja. **130.000 €**

**IURRETA:** 3 logela. Terraza. Estreinatze. C.E.E=E **97.500 €**

**MATIENA:** Laubideta. 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. C.E.E=E Alokairuan, erosteko aukeragaz. 600 €/180.000 €

## //ETXEBIZITZAK SALGAI

**ANTSO EZTEGIZ:** Etxebizitza altua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Garajea aukeran. C.E.E=F 137.000 €

**ARAMOTZ:** 3 logela, komun berria, sukaldea eta egongela. C.E.E=F **135.000 €** negoziagarria

**IURRETA:** 3 solairu. Lorategiagaz. C.E.E=G **148.500 €**.

**MIKELDI:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E=E **160.000 €**.

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea eta trastelekua. **228.500 €**

**ABADIÑO:** 1.000 m2-ko lursaila eraikitze baimenagaz. **250.000 €**

**IURRETA:** Alokairuan, erosteko aukeragaz. 2 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. C.E.E=F **115.000 €**

**DURANGO:** Santa Ana. PROMOZIO BERRIA. 1,2 eta 3 logelakoak. Komuna. Trastelekua aukeran. **170.000 €**-tik aurrera.

**MATIENA:** J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. Trastelekua. C.E.E:E **145.000 €**

**TABIRA:** Etxebizitza altua. 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E=E **200.000 €**

**ZEHARKALEA:** BERRIZTATUA. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=F **156.000 €**.

**EUBA:** BERRIZTATUA. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. C.E.E=E **147.600 €**.

**IURRETA:** 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m2-ko terraza. Trastelekua eta garajea. C.E.E=E **265.000 €**

**ALDE ZAHARRA:** Etxebizitza altua. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta despentsa. Igogailua. Berriztatua. C.E.E=E **185.000 €**

**KURUTZIAGA:** 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. C.E.E=G **186.000 €**.

## //LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

**TRONPERRI:** Garaje itxia. **21.000 €**.

**MENDIZABAL:** Itxia. **24.000 €**-tik aurrera.

**ASKATASUN ETORBIDEA:** **8.000€**-tik aurrera garajeak.

**ABADIÑO:** 160 m2. Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan. **175.000 €**

**F.J. de ZUMARRAGA:** Aukera. 114 m2. SALMENTA. **150.000 €**. Negoziagarria.

## //ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

**TRONPERRI:** Pisu ederra. 4 logela. Garajea. Ganbara. Txoko eta terraza komunitarioa. Kokapen ederra.

Muruetatorre: Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. 3 logela, printzipala balkoiagaz, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Garajea eta ganbara.

**DURANGO:** Eraiki berria. 3 logelako duplexa. Azken etxebizitza salgai. 200.000 €.

**DURANGO:** Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

**DURANGO:** Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

**DURANGO:** Hegoalde kalea. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

**ABADIÑO:** Torresolo kalean: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

**BERRIZ:** Elizondo etxaldea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**DURANGO:** 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

**GAZTELUA:** 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**MENDEXA:** Izkinako adosatu paregabea. Kokapen ederra eta oso ondo mantendua. la berria.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO:** Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN

**ABADIÑO:** 40 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com



**DURANGO** 2 logela  
67 m<sup>2</sup>  
**SASIKOA:** 67m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Argitsua. 3m<sup>2</sup>ko ganbara eta 28 m2-ko garaje itxia. Igogailua. C.E.E:E  
**239.000€**



**DURANGO** 3 logela  
90 m<sup>2</sup>  
**LARRASOLOETA.** 90 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 8 m2-ko ganbara. (erabilgari). C.E.E:E.  
**230.000€**



**MATIENA** 3 logela  
88,5 m<sup>2</sup>  
**MATIENA:**Halla, 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Igogailua. 8 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garajea. Alokairuan, erosteko aukeragaz. C.E.E: bidean.  
**220.000€**



**DURANGO** 3 logela  
93,03 m<sup>2</sup>  
**Antso Eztegi.** 93.03 m2. Egoera ezin hobea. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Balkoia. Igogailua.C.E.E:E  
**195.000€**



**IURRETA** 4 logela  
78 m<sup>2</sup>  
**IURRETA:** 78m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Leku lasaia. 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 2 balkoi. Ganbara handia. Behoko solairua goitegiagaz eta ortuagaz. / C.E.E:G  
**171.000€**



**DURANGO** 4 logela  
79,13 m<sup>2</sup>  
**ARAMOTZ.** 79.13 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Gas naturaleko berogailua. Ezin hobea norberak bere gogora ipintzeko. / C.E.E:F  
**115.000€**

## //DURANGO

**ALLUITZ KALEA:** 4 logela, sukaldea, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. **320.000 €**/E.E.E=E

**AMBROSIO MEABE:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. Lehen 205.000 € orain **198.000 €** / E.E.Z=E

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea. Igogailua. LEHEN 237.500 € / ORAIN **228.000 €** / E.E.Z=E

**ERRETENTXU:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

**FRAY JUAN DE ZUMARRAGA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. **220.000 €** / E.E.Z=E

**SANTIKURUTZ KALEA:** Bi bizitzako etxea eraikitze 600m2-ko lurzorua. **640.000 €**

**TXATXIENA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN 390.000 € / ORAIN **375.000 €** / E.E.Z=E

## //ABADIÑO

**ZELETABE:** 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 €** / E.E.Z=E

**URKIOLA AUZOA:** 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. 285.000 € / ORAIN **248.000 €** / E.E.Z=E

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIA KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z=F

**ERROTATXO KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 €** / E.E.Z=E

**ERROTATXO KALEA:** 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 €** / E.E.Z=G

**LEARRETA MARKINA:** 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 €** / E.E.Z=E

**MURGOITIO KALEA:** Etxebizitza bitan banatutako baserria lursailagaz. **290.000 €**

## //IURRETA

**AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000 €** E.E.Z=E

## //MAÑARIA

**ARRUETA AUZOA:** Berreraikitze baserria lurzorugaz. **220.000 €**.

## //MATIENA

**TXINURRISOLO:** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN **168.000 €** / E.E.Z=F

**TRAÑABARREN:** 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 220.000 € / ORAIN **210.000 €** /E.E.Z =E

## //OTXANDIO

**ELIZABARRI:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 €** / E.E.Z=F

## //ZORNOTZA

**SAN PEDRO KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN **160.000 €** E.E.Z=Bidean

## //BERRIAK

**DURANGO** Muruetatorre: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 €** / E.E.Z=E





**Botikak**

**BARIKUA, 18** · 09:00-09:00

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 19** · 09:00-09:00

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

**BALENCIAGA** Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Urribarri 5 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DOMEKA, 20** · 09:00-09:00

**SAGASTIZABAL** Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 21** · 09:00-09:00

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTEARTEA, 22** · 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Urribarri 5 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 23** 09:00-09:00

**DE DIEGO** Intxaurreondo 22. - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 24** · 09:00-09:00

**SAGASTIZABAL** Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**Zorion Agurrak**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, neska handi ez galdu irrifarrea asko maite zaitugula izan beti bihotzean


Mosu handi bat joatzu besarkadaren atzean neska bikaina zara eta jarraitu beti antzean."



**Malen**ek gaur 7 urte egin ditu eta **Oinatz**ek abuztuaren 23an 3 urte egin zituen. Gure etxeko txikiak handitzen, asko maite zaituztegu amatxok eta aitatxok.

**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Ibai!** Irailaren 16an 7 urte egin dituzulako. Besarkada handi bat gure etxeko mutil handiari! Muxu potolo bat izekoren eta osabaren partez.



Gure txikiak 7 urte egiten dauz! Zorionak, **Jon**, asko disfrutau egune! Milesker ateratzen doskuzun barre algara guztixegatik. Patxo potolo bat, Naia, aita, ama eta Arriandiko aitite, amama, tio eta tian partez. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Elene**, zure 6. urtebetetzean! Primeran ospatuko dogu alkarregaz asteburu honetan. Orain arte bezala, neska alaia izaten jarraitu deizule! Muxu handi bat etxeko guztion partez, bereziki Nikoleren partez!

**Eguraldia**

ZAPATUA 27° / 17° ☀️  
DOMEKA 28° / 15° ☁️

ASTELEHENA 24° / 17° ☀️  
MARTITZENA 25° / 15° ☁️

EGUAZTENA 25° / 14° ☀️  
EGUENA 20° / 14° ☁️

**clínica dental hortzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

**urtxintxa**  
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako  
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69





**Anne (1994) eta Paule (1997)**  
**Goienetxe Lizundia**  
 Warmi Lurra  
**Berriz |**

## “Kontziente izan behar dugu zer kontsumitzen eta zer erabiltzen dugun”

Osagai naturalak erabilia, Annek eta Paulek gorputzerako zein ilerako xaboa, azalerako krema eta olioak, eguzkitako krema eta detergentea egiten dituzte etxean, Sarrian

**BERRIZ** • AITZIBER BASAURI

**Warmi Lurra Ekuadorren jaiotako proiektua da. Annek hiru hilabeteko boluntariotza egin zuen han, komunitate indigenetan, GKE bategaz, iazko udan, eta baliabide naturalen aldeko apustu jasagarria egitea posible zela ikusi zuen. Paulek ere hango egunerokoa ezagutzeko aukera izan zuen bisitan joan zenean.**

**Zelan sortu zen Warmi Lurra?**

**Anne:** Warmi Lurra egunerokoan kontsumitzen dugunari buruz dugun jakinguratik sortutako proiektua da. Ez bakarrik jaterako orduan, baita azala edo gorputza zaintzerako orduan ere. Ekuadorreko komunitate indigenetan, inguruak eta naturak emandakoa erabiltzen dute, osasuna zaintzeko, jateko, janzteko... Hori guztia

gure egunerokoan zelan aplikatu hausnartzen hasita, xaboiak egiten hasi ginen. Trebatzen, informazioa biltzen, saltsan hasi ginen... Orduan ikusi genuen xaboiak ez ezik beste hainbat gauza ere egin genitzakeela.

**Hasiberriak zarete bidea egiten.**

**Paule:** Bai. Erabiltzeko xaboiak sortzen hasi ginen; berrogeialdian jardun genuen batez ere. Denbora libre eta ideia aurrera ateratzeko gogoia batu ziren, eta orduan pentsatu genuen jendartera zabaltzea. Ingurukoak sentsibilizatzea zen helburua, guk Ekuadorren bizi eta ikusitakoa erakustea eta oinarrizko produktu naturalak gerturatzeari, eskuragarri jartzeari.

**Anne:** Egiten duguna erakusteko, gure produktuak sare sozialetatik zabaltzen hasi ginen, helburu pe-

dagogiko batez. Izan ere, jendea produktu naturalak egitera animatzea ere bada helburua.

**Eta gertukoenek osatutako sarea handituz joan da. Harritu egin zaituzte izandako harrerak?**

**Anne:** Inork gure produktuak erosi zitezen ala ez pentsatu barik hasi ginen. Sorpresa handia izan da.

**Paule:** Bai, jendearen *feed-back-a* oso ona izan da, ez genuen eskaririk izatea espero. Bada, proiektu honi itxura formalagoa ematea da orain

“**Hilabeteko prozesu baten ondoren, kozinatzen erabili den olioagaz xaboa egiten dugu**”

PAULE GOIENETXE

erronka. Kontziente izan behar dugu zer kontsumitzen eta zer erabiltzen dugun. Hori garrantzitsua dela uste dugu.

**Km0 kontzeptua eta ekonomia zirkularra bultzatzen dituzue.**

**Anne:** Bai. Eta bide horretan, jendeak etxean botatzeko dituen ontziak emateko eskatzen dugu, berreraibiltzeko. Olio ere berreraibiltzen dugu.

**Paule:** Hilabeteko prozesu baten ondoren, kozinatzen erabili den olio horregaz xaboa egiten dugu.

**Zeintzuk osagai erabiltzen dituzue?**

**Paule:** Almendra, koko edo sesamo olioak, etxean ditugun landareak (erromeroa, santolina...), hidrolitoak eta argizaria.

**Bizi filosofia duzue Warmi Lurra?**

**Anne:** Hala da, bai. Bizimodurako gura dut hau guztia, natura zaintzea funtsezkoa dela deritzot. Horretan sinisten dut. Berdin pentsatzen dutenei aukera txiki bat eskaini gura diegu bide hori hartzeko.

**Bizi filosofia bizibide bihurtuko da?**

**Paule:** Ez dakigu. Gure ametsa da, garai baten egiten zen lez, denda bat zabaltzea ontziratuta barik saltzeko.

**Lau hortza**

Martin Loizate  
 Sarrionandia  
 Kazetaeria



**Hondoratu aurretik**

Argiak itzali dira eta antzokia beteta dago, “bete” hitzaren adiera berrian, hastear den kontzertuaren zain. Ikusleak isilik, antzerkian baileude-, jarrita egotearen albo-kalteak. “Jarrita hobeto ikusten dira talde onak, detaileetan fijatzen zara” dio “nahiago dut aulkitik ikusi dantza egin behar ez izateko” esatera ausartzen ez denak.

Izan da musika eskaintza gozatzeko aukera azken hileotan; tartean, Durangoko Udalak programa txukuna osatu du herriko beste eragile batzuekin elkarlanean. Bestalde, hainbesterako oihartzunik izan ez duen arren, Sorginolan antolatutako #EtxekoUzta zikloan gazte talde andanak parte hartu du, askorentzat entsegu lokaletik irten eta oholtzara igotzeko lehenengo aukera izan dena, agur esateko aprobetxatu dute beste batzuek. Aitzitik, hainbat eragile eszenari hauspoa ematen ahalegindu diren arren, euren egoera kezkarriak mintzatu zaizkigu kultur sortzaile eta teknika-riak. Beude.

Uda sasoiaren izaten diren eta goranzko joeran zeuden makrojaialdi eta festibalen arrastorik ez da aurtentzat: ez MTV, ez BBK Live ez eta enparaurik. Helburu bakarra mozkinak handitzea denean, segurtasuna bermatzea ez da bateragarria errentagarritasunarekin. Gogoratu dezagun erakunde publikoetatik diru laguntza milioidunak jaso izan dituztela azken urteotan. Arratoiak izaten omen dira lehenak ontzia abandonatzen, hondoratu aurretik.

**VITALDENT**

DURANGO

Landako etorbidea, 5

946 21 76 84

Kontsultatu baldintzak vitaldent.com-en. RPS 255/19. Osasun-erregistroa: 48C2516611



**% 20 DESKONTUA ORTODONTZIAN**  
 IKUSEZINA | HELDUAK | HAURRAK



Eta gainera, tratamendua finantzatzeko gero, ordainketak babesteko aseguru bat oparitzen dizugu, egon litezkeen ezustekoaren aurrean.